

## Aurkezpena

Proiektu berri bat abian jartzen denean, bideari ilusio eta kemen handiz ekiten zaio. Bide hori, gainera, urte askotan urrutira eramango gaituen bidaiaren hasiera bihurtzen denean, proiektuak are eta gehiago pozten gaitu.

Esku artean dugu *Mundu bat, begirada anitz* aldizkariaren bigarren zenbakia. 2008an abiarazitako proiektuaren bigarren urratsa da. Iaz hasitako kultur bidaia honek, beraz, bigarren saioa eskaintzen digu; bigarren txango honek, munduko hainbat paraje, bizipen, testu, kultur sinbolo, tradizio, itzulpen, nortasun, eta abarretan murgilduko gaitu. Izan ere, *Mundu bat, begirada anitz* aldizkariaren ekarpen nagusietako bat baita kultura ezberdinen arteko komunikazio eta eskuzabaltasuna sustatu eta zabaltzea.

Euskal Herriko Unibertsitateko Letren Fakultatearen helburuen artean dago bertako ikasleen sormena, ekimena, jarrera kritikoa, erantzukizuna, eta berritzeko zein gizartearen behar aldakorretara egokitzeko gaitasuna bultzatzea. Ezinbestekoa da, helburu honi ekiteko, jatorri ezberdinetako pertsonekin eguneroko elkarbizitza akademiko eta pertsonala sustatu eta finkatzea. Kulturarteko komunikazioak eta elkarbizitzak bultzatzen gaitu, hain zuzen ere, bestea eta norbera ere sakonago ezagutzera, eta jarrera ireki eta aldi berean kritikoa lantzerako. Letren Fakultateak bi ekimen nagusi ditu kulturarteko komunikazio eta elkarbizitza sustatzeko: irakurle-programa zabala eta mugikortasun-programa aberatsak.

Mugikortasun-programen bidez, Fakultateko kide guztiek dute aukera munduko bazter askotara bidaiatzeko eta denbora batez bertako bizitza akademikoaz gozatzeko. Bidaiari eta bidaiarekin lotutako bizipenei esker ikasten dugu bestea eta norbera hobeto ezagutzen. Irakurle-programaren

bidez, aldiz, geografikoki bidaiatu gabe hurbil gaitezke, Letren Fakultateko eguneroko bizitzan, kultura ezberdin eta bizipen ezezagunetara.

Kulturartekotasuna islatzen duen Babelgo dorrearen irudira jotzen badugu, esan dezakegu hein handi batean Letren Fakultatea Babelgo dorrearen antzeko unibertso txikia bihurtu dela, 1997. urtean irakurle-programa abian jarri zenetik. Orduz geroztik, urratsez urrats, irakurle kopurua zabalduz joan da, eta, horrekin batera, bertako ikasle, irakasle eta orokorrean kide guztion begiradak ere mundura zabalduz joan dira. Ukaezina da urte hauetan guztietan irakurleak garrantzitsu bihurtu direla irakaskuntzan, kultur sustapenean, ikerketan, munduko txoko ezberdinetako bizipenen hedapenean. Aldi berean, irakurleen eguneroko eginkizunak zuzenki uztarturik daude, besteak beste, Letren Fakultateko ardatz estrategiko den mugikortasun-programen sustatzearekin. Irakurleak dira, kasu askotan, ikasleak atzerriko herrialde jakin batekin duen lehen harreman zuzena, eta sarritan irakurleek pizten dute ikasleengan atzerrian denboraldi batez ikasketak burutzeko irrikia. Beraz, batez ere Fakultateko kideon begietan, *Mundu bat, begirada anitz* aldizkariaren bigarren zenbaki honetan parte hartzen duen irakurle bakoitza bere herrialdeko hizkuntza eta kulturaren erreferentzia-puntu da.

Aldizkari honetako testuek, Letren Fakultateko irakurleek eguneroko jardunetan etengabe egiten duten bezala, kulturen artean komunikazio-zubiak eraikitzen dituzte, munduko hainbat eta hainbat ikuspuntu eta pentsamolderen artean sare zabala osatuz. *Mundu bat, begirada anitz* munduari so egiteko modu ezberdinen hedatze-plataforma da, beraz, eta ziur nago begirada horien sinergia zabaltzen eta indartzen joango dela, Fakultatean eta gizarte osoan.

Eskertzekoa da *Mundu bat, begirada anitz* aldizkariaren bigarren zenbakiko ekarpenak lantzeko irakurle bakoitzak egin duen ahalegina, eguneroko irakaskuntza eta ikerketa baztertu gabe, bakoitzak bere kultura eta nortasunari buruz hausnartzeko astia hartu behar izan baitu. Horri esker jaso dugu aldizkari honetan hainbat kulturen lekukotasun esanguratsua, eta, horri esker, zenbaki honen ale bat esku artean hartzen dugun bakoitzean, orrialdez orrialde, gure begirada gero eta gehiago irekiko da mundu zabalera.

Abian da, beraz, *Mundu bat, begirada anitz* kultur bidaiaren bigarren txangoa. Ongi etorri, irakurle, eta goza ezazu bidean ikusten dituzun parajeek!

Gasteizen, 2009ko azaroaren 30a

GARBIÑE IZTUETA  
Mugikortasun Programetako Dekanordea  
Letren Fakultatea